

8. artikulua. Kotizazioan salbuespena 2020ko martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan adierazitako alarma egoeran zehar jarduera etetearen ezohiko prestazioa jaso duten langile autonomoentzat.

1. 2020ko uztailaren 1az geroztik, Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langile Autonomoen Erregimen Berezian edo Gizarte Segurantzako Itsasoko Langileen Erregimen Berezian **alta eginda duen** langile autonomoak, eta 2020ko martxoaren 17ko COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko ezohiko premiazko neurriei buruzko 8/2020 Errege Lege-dekretuaren 17. artikuluan aurreikusita dagoen jarduera eteteagatik **ekainaren 30ean ezohiko prestazioa jasotzen ari denak**, Gizarte Segurantzako eta lanbide heziketako kotizazioetan **salbuespenerako** eskubidea izango du, honako kopuru hauek ezarrita:

a) **Uztaileko hilabeteari dagozkion kotizazioen ehuneko 100.**

b) **Abuztuko hilabeteari dagozkion kotizazioen ehuneko 50.**

c) **Iraileko hilabeteari dagozkion kotizazioen ehuneko 25.**

2. Salbuestea erabakitzeko aintzat hartuko den kotizazio oinarria adierazitako hilabete bakoitzean izango lukeen kotizazio oinarria izango da. Uztaileko, abuztuko eta iraileko hilabeteetako kotizazio salbuestea mantendu egingo da langileek aldi baterako ezintasunagatik prestazioa edo beste edozein laguntza jasotzen duten aldietan, betiere, baldin eta kotizatzeko betebeharra mantentzen bada.

3. Kotizazioa salbuestea **bateraezina izango da jarduera eteteagatik prestazioa jasotzearekin.**